

fokieder ikastola  
gasteiz




# ***Ikastolako arauak***

---

# IKASTOLAKO ARAU OROKORRAK

Leku seguru eta garbi batean ikasteko eskubidea daukazu



Eta besteentzat ikastola zaintzeko betebeharra duzu.




Inork zu mina ez egiteko eskubidea daukazu.



Besteak ondo tratatzeko betebeharra daukazu.




Zure irudia edo izena, zure baimenik gabe inork ez erabiltzeko eskubidea daukazu.




Ikastolara mugikorra ekartzekotan, zuzendaritzan uzteko betebeharra duzu.



**Euskaraz ikasteko eskubidea duzu.**




**Eta euskara ikastolan, ahal duzun guztietan, erabiltzeko betebeharra duzu.**



**Inork baztertua ez izateko eskubidea daukazu.**



**Inor baztertua ez sentitzeko urtebetetzetako oparirik edo gonbidapenak ez ditugu ikastolara ekarriko.**




**Jolasteko eskubidea daukazu.**



**Eta zure betebeharra da, jostailuak besteekin partekatzea. Hobeto partekatzeko, ikastolako baloiak erabiliko ditugu.**





# IKASTOLAKO SARRERA- IRTEERAK

## ARAUA

## ZERGATIK IZANGO DA?

1. Ikastola barrura sartzeko musika hasi arte itxaron behar dugu. Frontoian edo jolastokian egon, inolaz ere eskaileretan.

1. Ikastolako patioan inolaz ere ibiliko gara bizikletan edo patinetean igota, beti alboan eramango dugu eskutik helduta. Patineteak bizikleten esparruan aparkatzen saiatuko gara.

1. Eskailerak jaistean motxila gainean eramango dugu, ez kolpeka.



# IKASTOLAKO JOLASALDIK


## ARAU

1. Irten ondoren ezin gara berriro barrura sartu musika jo arte. Irten baino lehen pentsatu behar dugu zer eraman behar dugun (berokia, hamarretakoa...)



Barruan daudenak molestetzen ditugulako.

2. Jolasaldietan hitz-egingo dugu beti euskaraz.



Bestela euskara galdu egingo delako. Gure familiakoek aukeratu dutelako ikastola hau euskara ondo ezagutzeko.

3. Patioko txokoetako arduradunak eta materiala errespetatu beharko dugu.



Gure patioko txokoak oso aukera onak direlako ondo pasatzeko. Arduradunek ahalegin handia egiten dutelako antolatzen. Materiala galtzen bada jolas gutxiago egingo delako.

4. Euria ari duenean gehienok frontoian egon beharko dugu. Ez dugu baloia atera behar, ezta pilota edo soka ere. Egutegi baten arabera areto nagusian edo bideo gelan egongo gara batzuk: Areto nagusian mahai jolasetan arituko gara. Bideo gelan, berriz, pelikula bat ikusten.



Frontoian leku gutxi dagoelako konpartitzeko zarata gehiegi dagoelako.

## ARAUA

## ZERGATIK IZANGO DA?

5. Zaborra sailkatuko dugu kolore ezberdinetako paperontzietan:  
HORIAN: ontziak, plastikozko poltsak, aluminiozko papera...  
URDINEAN: papera eta kartoia  
BELTZEAN: gainontzekoa.

Horrela birziklatu ahal izango delako eta natura zaintzeko zerbait egingo dugulako.

6. Baloia ikastolatik kanpo ateratzen bada, bere bila bakar bat irtengo da, irakaslearen baimenarekin,

Inguruko errepideetan arriskua dagoelako.

7. Kanpoko oinezkoren batek botatzen badu, hobe, eta ez ahaztu eskerrak ematen.

Horrela, beste egun batean prest egongo delako guri laguntzeko.

8. Belardiak zapal ditzakegu, bertan jolas daiteke, baina ez futbolean.

Belarra hiltzen delako

9. Ez dugu ikastolako aurrealdeko porlanezko esparrua jolasteko erabili behar.

Jende eta ibilgailu asko sartzen direlako.

10. Jolasaldian komunera joateko beharra badugu, kanpoko komunitara joan gaitzke.


Barruan molestatzen dugulako eta barruko komunak ez daudelako ordu horretan zainduta

11. Txikle eta pipak ez ditugu jango jolasaldietan

Oso zailak direlako garbitzen.

12. Gatazka bat sortzen denean, jolastokian dauden ahoa eta belarrien gunetan konpontzen saiatuko gara eta, behar badugu, irakasleei deituko diegu.

Arazoak momentuan konpondu behar direlako, Bestela, handitzen eta okertzen joaten dira



# IKASTOLAKO PASABIDEAK

## ARAUA

## ZERGATIK IZANGO DA?

1. Pasabidean txikiak, irakasleak, gurasoak... pasatzen utziko ditugu.
2. Eskaileretan behar den aldetik jeitsi/igoko gara.
3. Kideak mina egin gabe tratatuko ditugu.
4. Ilaran gaudenean bultza egin gabe mugituko gara.
5. Besteen geletara ez gara sartuko.

Bertan aurkitzen diren pertsonak errespetatu behar direlako

6. Pasabidea garbi mantenduko dugu, paperak eta zikinkeriak zakarrontzira botako ditugu.
7. Pasabideetan dauden horma irudiak, marrazkiak edo erakusketak errespetatuko ditugu.


Guztiok daukagulako eskubidea ikastola garbi eta zainduta izateko.

8. Pasabidean poliki ibiliko gara. Tonu egoki batez hitz egingo dugu, garrasirik egin gabe.
9. Pasabideetan gaudenean ez ditugu beste gelakideak molestaturiko (argiak piztu-itzali, atea ireki...)
10. Gurpildun motxilekin lasai ibiliko gara (korrikarik ez, eskaileretatik bota gabe).

Lana ari garenean egiten, eskubidea daukagulako inor molestatu gabe egiteko.



# IKASTOLAKO KOMUNAK



## ARAUA

1. Pertsonen intimitatea eta bakoitzaren espazioa errespetatuko ditugu.

## ZERGATIK IZANGO DA?

Guri, ere, gustatzen zaigulako intimitatea.

2. Gure ardura denez, erabili eta gero, bonbari emango diogu

Inori nazkarik ez emateko, paperarekin ez ataskatzeko eta usainik ez egoteko, honela garbiago mantenduz.

3. Komuna garbi mantenduko dugu

Txukun aurkitzea atsegina delako eta osasunarentzat garrantzitsua delako.

4. Txiza komun barruan egingo dugu

Ez irristatzeko eta usain txarrak nazkarik ez emateko.

5. Komuneko paperarekin ez dugu jolastuko.

Komuna eta iturriak zikindu eta ataskatzeaz gain zuhaitzak gastatzen direlako.

## ARAUA

## ZERGATIK IZANGO DA?



6. Ura ez dugu alferrik gastatuko

Bukatzen den altxor bat delako, garbitzeko behar dugulako eta benetan behar dugunean ez dugulako izango.

7. Komuna leku lasai bat denez besteak ez molestatzeko ez dugu oihukatuko, ezta jolastuko ere

Honetarako leku aproposa ez delako.

~~8. Komunean norbait dagoenean ez ditugu argiak itzaliko.~~

Errespetu falta delako, beldurrik ez izateko edota minik ez hartzeko.

9. Gelan sartu aurretik patioko komunak erabiliko ditugu

Denbora nahiko dugulako komunera joateko klaseak moztu gabe.